

## Goreti Barrutieta, Durangotik mundura

Goreti Barrutieta bere etxe du Durango Rugby Taldea. 17 urte gaz, bere talentua mundura zabaldu du. Orain asteburu bi World Series txapelketan debutatu zuen Espainiako selekzio absolutuagaz, eta entsegu bat lortu zuen. / 2-3



### BOST URTEREN ONDOREN, AUZIBIDEA ZABALIK

Atzo bost urte bete ziren Zaldibarko Verter Recycling hondakindegia amildu zenetik. Zaldibar Argitu plataformak oroimen ekitaldia antolatu du domekarako, Eitzagan, 12:30ean. / 11

Zaldibarko hondakindegia gaur egun.

### Durango patata-tortilla pintxorik onena erabakitzeko ordua

Asteburu honetatik otsailaren 23ra arte, Durango lehenengo patata-tortilla pintxo lehiaketa jokatu da. 17 ostalari daude lehian / 4



izena emon



maristak

**BATXILERGOA  
ATE IREKIAK**

Otsailak 12  
17:30ean

946 81 0058

www.maristak.com



**Joseba Derteano** DURANGO

"Ausarta, azkarra eta bertikala". Horrela definitu dute Goretí Barrutieta zelai barruan, baina zelaitik kanporako bere ibilbidea laburbiltzeko ere balio du. 17 urte gaz, azkar egin du gora eta ez zaio ausardiarik falta munduko onenen kontra lehiatzeko. Orain asteburu bi errugbi 7ko Espainiako selekzio absolutuagaz debutatu zuen Australian, World Series txapelketaren barruko jardunaldian. Orain zor-tzi urte, 2017ko otsailean, beste Barrutieta batek debutatu zuen txapelketa horretan bertan: Uri-barri Barrutietak. Ahizpa nagusia erreferente izan da beti ahizpa gaztearentzat.

**Adinez nagusia izan aurretik debutatu duzu Espainiako selekzio absolutuan. Deialdian sartzea itxaroten zenuen?**

Egia esanda, ez nuen espero. Egun batetik besterako kontua izan zen. Jokalari bi lesionatu egin ziren eta ea Australiara joango nintzen galdetu zidaten. "Ba goazen", erantzun nien.

**Zelako esperientzia izan da?**

Errugbi zelaira sartu nintzenen ez nuen sinesten. Jende asko harmailetan eta munduko jokalaririk onenak zelaian. Txikitan, horrelako partiduak eta jokalaririk telebistaz ikustean, ametsa iruditzen zitzaidan ni euren mailara heltzea. Eta orain hor egon naiz. "Zer egiten dut nik hemen, 17 urte baino ez ditut eta!", pentsatu nuen.

**Talde nagusian berria zinen. Zela-koa izan zen egokitzapena?**

Ondo joan zen. Denak jatorrak dira. Jokalari asko ezagutzen nuen. Aurretik, talde nagusiagaz bost bat bider entrenatuta nago. Orduan 16 urte nituen eta entrenatu bakarrik egiten nuen eurekin, 17 urte egin arte ezin daitekeelako talde nagusiagaz jokatu.

**Zenbat partidu jokatu zenituen Australian?**

Bost partidutan parte hartu nuen, selekzioak jokaturiko denetan. Australiaren kontrako partidua osorik jokatu nuen, titular ir-tenda. Gainerakoetan partidu erdia jokatu nuen, gutxi gora-behera.

**Zelan ikusi zenuen zeure burua munduko onenen kontra lehiatzen?**

Ondo sentitu nintzen. Maila handiko jokalaririk dira eta igartzen zen euren lana errugbia dela; hau da, dedikazio osoa horretara dutela, baina beldurrik

barik jokatzeko ahalegindu nintzen.

**Entsegu bat lortu zenuen Irlandaren kontrako garaipenean. Zelan gogoratzen duzu?**

Partidu hori aulkian hasi nuen. Hiru entsegu eginda aurretik gindoazen eta orduan sartu nintzen zelaira. Gogoan dut baloia hartu eta segituan korrika hasi nintzela entsegu marraraino heldu arte.

**Errugbi 7an aritu zara. Zazpi jokalaririk onenak ez talde bakoitzeko. Eskakizun handiko modalitatea da?**

Bai, errugbi 15ean baino fisiko hobe behar duzu. Erresistentzia aldetik esan gura dut, iraupenean, ez plakaketetan eta antzerakotan. Korrika asko egin behar da. Gainera, jokatzeko modua oso desberdina da, arina. Eta akats bat egiten baduzu edo espazio txiki bat utzi, galduta zaude, aurkariak entsegua lortuko du.

**Iaz, Frantzia, Europako txapel-dunorde geratu zinen 18 urtez azpiko taldeagaz. Hain gora heltzea helburuen artean zeneukan?**

18 urtez azpiko taldea beti goian ibili izan da Europako txapelketetan. Espektatiba handiagaz joan ginen. Gainera, hara heldu ginenean lagunarteko partidu bat jokatu genuen Europako txapel-duna zen Frantziaren kontra eta maila ona eman genuen. Beraz, txapelketan eurei irabazteko kapaz ikusten genuen geure burua. Azkenean, Frantziaren kontra jokatu genuen finala eta ozta-ozta irabazi ziguten, hiru puntugaitik: 15-12. Pena izan zen.

**Alberto Socias Espainiako federazioko Errugbi 7ko zuzendari teknikoak honela definitu zaitu: "Ausarta, azkarra eta bertikala". Ados zaude definizio horregaz?**

Bai, esango nuke nahiko ondo definitzen dituela nire gaitasun nagusiak. Ausarta izaten ahalegintzen naiz eta azkarra naiz.

**Eta zer geratzen zaizu hobetzeko?**

Gauza asko oraindino. Zelai barruko diziplina hobetzea, esaterako, edo elikadura gehiago zaintzea.

**Euskadiko errugbi selekzioagaz ere hitzordu garrantzitsu bat duzu asteburu honetan.**

Zapatu honetan Espainiako txapelketako finala jokatuko dugu. Finala Bilbon da eta Kataluniako selekzioaren kontra jokatuko dugu. Iazko finala galdu egin genuen Kataluniaren kontra. Kasu honetan

# "Uri ahizparengaitik hasi nintzen errugbian. Niretzat erreferente bat izan da beti"

**GORETI BARRUTIETA BARRENETXEA IURRETA, 2007**

Durango Rugby Taldeko harribitxi gazteak World Series txapelketa jokatu du Australian. 17 urte gaz, Espainiako selekzio absolutuagaz debutatu eta entsegu bat lortu du



Umetatik Durango Rugby taldean jokatzen du.

ere final lehiatua izan zen. Aurten, irabazteko itxaropena dugu. Nesketan Euskadiko selekzioa indartsuenetarikoa da estatuan.

**Euskadiko selekzioagaz ibilbide luzea duzu?**

Bai, 15 urte gaz jokatu nuen lehenengo, 16 urtez azpiko taldean. Mutilen deialdi bat zegoen. Normalean neskek ez ziren joaten, maila horretan jokalaririk gutxi zegoelako jokatzeko. Deitu egin zidaten eta partidu bat jokatzera joan nintzen Frantziara. Neu izan nintzen taldeko neska bakarra. Talde beragaz Espainiako txapelketan parte hartu nuen eta txapel-dunorde geratu ginen. Ondoren, 16 urte gaz, kategoria bat igo ninduten eta 18 urtez azpiko selekzioagaz Espainiako txapelketa jokatu nuen, Valentzia. Ni baino urte bi gehiagoko jokalariekin jokatzen aritu nintzen.

**Uri-barri Barrutieta zure ahizpa nagusia duzu. Jokalaria zela, berak ere ibilbide oparoa izan zuen eta munduko txapelketak jokatu zituen. Uri-barri zure ispilu izan da?**

Bai, dudarik barik. Beragaitik hasi nintzen errugbian. Momentu konkretu hori ondo gogoratzen dut. Bost-sei urte izango nituen. Etxean nengoan, Urigaz eta lehengusuagaz. Errugbiko baloi batez paseak egiten zebiltzan. Halako batean, niri eman zidaten baloia eta euren jokora batu ninduten. Paseak oso ondo egiten nituela esan zidaten, eta errugbian izena eman behar





Goreti Barrutieta aurkarien artetik aurrera egin guran, ligako partiduan. LUIS ITURRIOZ



Umetatik azkartasuna izan du dohainik handienetarikoa bat.



Goreti baloia jotzera doala.



Uri Goretiri oinetakoak lotzen.

nuela. Egun horretan bertan haxe esan nion amari: "Ama, errugbian apuntatu gura dut". Gerora ere Urik pisu handia izan du nire ibilbidean. Umetan askotan ikusi ditut bere partidua. Nazioartean jokatzeko zuean, mugikorragaz jarraitzen nituen bere partidua. 2018an San Frantziskora (AEB) joan ginen Uriren partidua ikustera. World Seriesa jokatu zuen han, nik orain jokatu dudana txapelketa bera. Orain, DRTn nire taldeko bigarren entrenatzailea da. Niretzat erreferente bat izan da beti. Aholkua berari eskatzen diot beti. Errugbiari loturiko guztia berari eramanen dit.

**Hartu-eman horren adibide bat emango didazu?**

Iaz Getxo errugbi taldeak deitu zidaten. Aurten ere deitu didate. Ohorezko Mailako taldea da. Gurasoekin barik, Urigaz aritu dira hartu-emanetan. Bion artean eraman dugu gaia.

**Zer gertatu zen Getxo errugbi taldearen eskaintzagaz?**

Ezetz esan nien. 16 urte nituen eta 17 urte izan arte ezin nuen talde nagusiagaz jokatu. Beraz, ez nuen Getxoraino joan gura DRTren maila berean dagoen talde batean jokatzera. Urte erdi itxaron behar nuen talde nagusiagaz jokatu ahal izateko. Gurago nuen hemen geratu, nire lagunekin eta nire jendeagaz. **Getxok etorkizunean berriro zure atea jotzen badu, proposamena aztertuko duzu?**

Bai. Gustatuko litzaidake Ohorezko Mailan edo goragoko maila batean jokatzeko. DRTn oso gustura nago, baina gure ligako taldeen kirol mailan alde handia ikusten da. Zortzi entseguko aldea izaten da batzuetan. Ikusiko dugu etorkizunak zer dakarren, baina helden diren proposamenak aintzat hartuko ditut.

**Umetatik Durango Rugby Taldean zabilta. Zer da DRT zuretzat?**

Dena. Nire lagunak DRTn dabilta eta nire familia guztiak hemen jokatzeko du. Nire hiru lehengusuk DRTn jokatzeko dute errugbian; nebak hemen jokatu du eta ahizpa biek ere bai. Nire osaba presidentea izan da. Amaren neba mutilen entrenatzailea izan zen. Eta adibide gehiago ditut. Nire familiak lotura estua izan du DRTguz.

**"GUSTATUKO LITZAIKIDE OHOREZKO MAILAN EDO GORAGOKO BATEAN JOKATZEA"**

**"ZELAIRA SARTZEAN EZ NUEN SINESTEN. HARMAILETAN JENDE ASKO ETA MUNDUKO ONENEN KONTRA"**

**DRTguz Euskal Liga jokatzeko zabilta. Durango Ermarmotor taldeak bigarren tokian amaitu du lehenengo fasea. Horri eskerrak, onenen multzoan zabilte jokatzeko bigarren fasea. Une honetan, laugarren tokian zaudete. Liga denboraldia itxaroten zenuen moduan doa?**

Denboraldia ondo doa. Taldean 26 fitxa daude eta kopuru polita da, baina dela lanagaitik, dela bestelako konpromisoengaitik, edo lesionatu asko ditugulako, batzuetan 16 jokalarigaz joaten gara partiduetara; hau da, aldaketa bakarragaz. Inoiz 14 jokalarigaz ere joan gara. Partidu horiek fisikoki gogorak izaten dira.

**Denboraldia amaitu bitartean, zein da helburua?**

Gure mailarik onena ematea eta ahal dugun lehenengo talde izatea helburuak. Eta errugbian jokatzeko ondo pasatzea. Hori ere garrantzitsua da.

**Zelako taldea duzue?**

Jokalaririk gazteen eta helduen arteko uztarketa bat da. Behar bada gazte gehiago dagoela esango nuke, iaz gazte askok eman zutelako izena. Ez da ohikoa errugbian. Normalean, neskek joera handiagoa dute saskibaloirako. Aukera kontua ere bada sarritan. Umetan multikiroletan nik ez nuen izan errugbia aukera moduan. Orain, errugbia ere badago aukeren artean. DRTk lan handia egiten du horretan, eta poztekoa da.

IKERKETA



## ZELAN ALDATZEN DA GURE HIZKUNTZA ZAHARTZEN GOAZELA?

**EUSKARAZ HITZ EGITEAK ETA HIZKUNTZA BAT BAINO GEHIAGO JAKITEAK BA OTE DU ERAGINIK ZAHARTZAROAN?**



**NOR BILATZEN DUGU**  
60 urtetik gorako euskaldunak  
Ama hizkuntza euskara edo gaztelania.



**Ordubeteko 2 edo 4 saio**  
Bakarkako saioak.



**ZER EGITEKO**  
**Elkarrizketa;**  
froga kognitibo batzuk eta hizkuntza ariketa errazak.



**20 €ko saria**



**NON**  
Durango. Laubideta 6  
Intxaurren atzealdeko oktogonoa.

**945 013 159 · gogoelebiduna@ehu.eus**










PIK0002-1426750A-100 proiektua  
MICRO/RES/7/013039/50.000.000.0033 ek  
eta FEDER, UE-ek finantzatuta

**EMAN IZENA**



**ANIMATU GERTUKOAK!**



# Durangoko patata-tortilla pintxorik onenaren bila

Durangoko ostalariek patata-tortilla pintxo txapelketaren lehenengo edizioa jokatu dute otsailaren 6tik 23ra. Lehian 17 tabernak parte hartuko dute eta sari bi egongo dira jokoan: profesionalen epaimahaiarena (900 euro) eta herritarrena (500 euro)

## Ekaitz Herrera DURANGO

Asteburu honetatik hasita otsailaren 23ra arteko asteburura arte, patata-tortilla pintxorik onena saritzeko txapelketa jokatu da Durangoko tabernetan. Oinarri bera dago pintxo guztietarako: patata, arrautza eta gatza izan behar dituzte derrigorrez. Beste osagai gehigarriak aukerazkoak dira, baita tipula ere. Txapelketan 17 establezimendu lehiatuko dira eta honako ordutegi honetan egongo dira beren sorkuntzak tabernetan eskuragarri: eguinetan eta barikuetan (19:30-22:00), zapatuetan (12:00-15:00 / 19:30 - 22:00) eta domeketan (12:00-15:00).

Profesionalen epaimahaiak honako ezaugarri hauek baloratu ditu hamazazpi pintxoetan: zaporea, gatz puntua, tenperatura eta aurkezpena. Horietan guztietan gehien nabarmentzen den tabernariak 900 euroko saria lortuko du. Bes-



Udal ordezkariak eta egitasmoa parte hartzaileetarako batzuk.

talde, bigarren sari bat ere egongo da, pintxoak jaten dituztenek erabakiko dutena: herri epaimahaiak 500 euroko saria emango dio pintxorik onenari. Botoa emateko baldintza honako hau izango da:

lehian dauden 17 pintxoetatik gutxienez zortzi dastatzea. Taberna bakoitzak botoa emateko kutxa izango du eskuragarri; dastatzaileek bertan eman behar dute botoa. Gainera, parte hartzaile guztien artean 100

euro zotz egingo dituzte.

Egitasmoan parte hartuko duten tabernak honako hauek dira: Leku Berri, Batzokia, Les Villes, Txo, Arripu, Xixilu, Pol Pol, Alex, Txukun, Lupetza, Bowie, Kale Kantoi, Mikeldi, Urrats, Gora Gora, Pausta eta Bodegón Landako.

## Gilden lehia ere bai

Sari banaketa otsailaren 26an egingo dute, Kurutzesantun (Turismo Bulegoa). Ekitaldian, pintxo eta taberna irabazleak zeintzuk diren jakinaraziko dute, eta bigarren lehiaketa bat ipiniko dute martxan: gilda txapelketa. Azken hau otsailaren 27tik martxoaren 16ra egingo dute.

Jesica Ruiz alkateordearen berbetan, egitasmoa "tokiko ostalaritza bultzatzeko eta ostalarien lanaren garrantzia nabarmentzeko" baliagarriak dira. Udalerriko "ehundura ekonomikoari ekarpena egiteaz gainera, Durango gastronomikoki oraindino herri erakargarriagoa egiteko modua" dela dio. Dendak Bai elkartearen presidentea Alex Palaciosen ere "funtsezkotzat" jo ditu halako egitasmoak, "ostalaritzari ikusgarritasuna ematea" dakartelako. "Herritarren parte hartzea bultzatzen duten eta Durango gastronomiari balioa ematen dioten proposamen guztiak babesten jarraituko dugu Dendak Baitik".

# Durangoko Euskaraldiaren aurkezpena, hilaren 20an

Antolatzaileek kanpainako xehetasun guztiak argituko dituzte San Agustin kulturgunean

## Ekaitz Herrera DURANGO

Aste bi baino ez dira falta Durangoko Euskaraldiaren egitasmoari buruzko zehaztasun guztiak jakinarazteko. Otsailaren 20an, kanpainako ezaugarri guztiak aletuko dituzte San Agustin kulturguneko ekitaldian, 18:30ean hasita. Besteak beste, udalerriko hamaikakoa aurkeztuko dute eta hainbat bideo proiektatuko dute. Antolatzaileek jakinarazi dute luntxa ere egongo dela. Herritarrek aurkezpena joatera gonbidatu dituzte. Era berean, Durangoko Euskaraldiko kideek herritar guztiak deitu dituzte hizkuntza ohiturak eraldatzeko ariketa erraldoian parte hartzera. Egitasmoa Euskal Herriko luze zabalean egingo da maiatzaren 15etik 25era, hamaika egunean. Aurtengoa Euskaraldiaren laugarren edizioa izango da, udaberriaren egiten den lehenengoa.

# DAFAren salaketak soka luzeko eztabaida politikoa eragin du

Durangoko alderdi politikoen kritikak zuzendu dizkiote elkarrizketan, udalbatzan zein udalbatzatik kanpora

## Ekaitz Herrera DURANGO

Joan zen asteko osoko bilkuran, Durangoko ordezkari politikoen DAFaren salaketa izan zuten ahotan. EH Bilduk urgentziazko mozio bat aurkeztu zuten gainerako ordezkariak, Durangoko emakume batek udalerriko ertzain-etxean jasotako arreta zela eta. Alabaina, mozioak ez zuen aurrera egin: EAJ, PSE-EE eta PP bat etorri ziren gaiari konponbidea eman behar zitzaiola, indarkeria matxistaren aurkako jarrera berretsi zuten, baina auzia ur-

gentziazko mozio batez lan beharrean egokiago iritzi zioten auzia beste era batean eta beste eremu batzuetan lantzeari. Horrenbestez, subiranistek aurkezturiko mozioak ez zuten argirik ikusi.

Udalbatza amaituta, luze barik ailegatu ziren bateko zein beste alderdi politikoen kritikak. EH Bilduk honako hau leporatu zuten gobernu taldeko alderdiei: "Indarkeria matxista jasan duten emakumeak arreta desegokia ematen zaie Durangoko ertzain-etxean, bai-

na udal gobernuarentzat gaia ez da premiazkoa". Herriaren Eskubideak ere antzeko interpretazioa kaleratu zuten. Gero, Durangoko gobernu taldeak bere kritika zuzendu zuten subiranistek eta independenteei. "Oportunismo politikoa" erabiltzea egotzi zuten EH Bilduri eta Herriaren Eskubideari. Eguazten honetan, EAJ izan da kritika plazaratzen azkena. Alderdi jeltzaleak berretsi egin du indarkeria matxistari aurre egiteko konpromisoa, eta kritika egin dio koalizio subiranistari; indarkeria matxista "tresna politikoa" erabili duelakoan dago EAJ. "Onartezina da, arduraz eta seriotasunez lan egin beharrean, EH Bilduk hain arazo larria probestu gura izatea etekin politikoa ateratzeko", esan dute.

## Bertsio kontrajarriak

Durangoko EAJren esanetan, EH Bilduk "informazio okerra" zabaldu zuen ertzain-etxe indarkeria matxistagaitiko biktimek artatzeko zerbitzuaren gainean. Talde jeltzaleak ziurtatu du zerbitzua "24 orduz martxan" dagoela. DAFak, ostera, bestelakoa dio. Antolakunde feministaren esanetan, "polizia-etxean indarkeria matxistatik adituak diren langileak bi egon beharko lirarteke biktimei arreta ematen, baina 2024ko azken hiletan ez zen horrela izan". DAFak esan zuen zerbitzu hori "hainbat hiletan" egon dela eman barik. Eta gaineratu zuen arreta hori "goizez bakarrik" egon dela martxan. EH Bilduk mugimendu feministak esanikoak eraman zituen udalbatzara.

# Errepublikazaleen ibilaldia egingo dute, domekan, Durangon

## E.H. DURANGO

Otsailaren 9an, domeka, 152 urte beteko dira Espainiako estatuan lehenengo errepublika ezarri zenetik. Data hori baliatuta, Euskal Herriko Talde Errepublikanoak bigarren errepublika oroitzeke ibilaldi gidatua antolatu du Durangoko kaleetan. 11:00etan Plateruenetik hasita, hainbat lekuri buruzko azalpenak emango dituzte; udal hiltzategi zaharra, merkatu plaza, Andra Mariko elizpea, Kurutzia kalea, Jesuitak, Santa Susana, udal plaza, San Agustin, Nevers, pilotalekua, Ezkurdi eta tren geltokia zeharkatuko dituzte. Jimi Jimenez historialariak emango ditu azalpenak bisita gidatuan.

# Karabana solidariorako janari bilketa, martxan

Otsailaren 16ra arte, oinarrizko elikagaiak batuko dituzte Durangaldeko supermerkatuetan, ikastetxeetan eta kiroldegietan. Río de Oro *Bizum* dohaintzak jasotzeko aukera ere eskainiko du. Edozelan ere, janaria erosiko dute diruagaz

**Ekaitz Herrera** DURANGALDEA

Aurreko urteetan legez, Río de Oro 24 tona laguntza humanitario bidali gura du Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetara. Beharizan hori "inoiz baino larriagoa" dela azaldu dute: "Zoritxarrez, azken urteotan sahararrek jasoriko laguntza nabarmen murriztu da, eta horrek ondorio lazgarriak izan ditu haien bizimoduan. Gainera, osasun-larrialdiak eta Marokogaz piztutako gerrak egoerak okerrera egitea baino ez dute ekarri". Hori guzti hori dela eta, Durangalde osoko herritarrak deitu dituzte elikagaiak batu eta proiektuari ekarpena egitera.

Río de Oro aukera bi ipini ditu kanpainan parte hartzeko. Batetik, elikagaiak batuko dituzte. Batez ere, lekaleak, arroza, pasta, azukrea, sardinak oliotan, atuna oliotan eta konpresak eskatu dituzte. Herritarrek, besteak beste, supermerkatuetan, dendetan, ikastetxe-



2020ko Karabana Solidarioko irudi bat. RÍO DE ORO

tan zein kiroldegietan utzi ditzakete dohaintzak. Bestetik, Río de Oro *Bizum* bidalketak edo transferentziak egiteko aukera ere eskaini du. Edozelan ere, jasoriko dohaintza guztiak elikagaiak erosteko erabiliko dituztela argitu du elkarteak. Bi-

garren bide hori aukeratzen dutenek *Bizum* aplikaziora sartu eta *Río de Oro Durangaldea* topatu beharko dute (01955 kodea). Bestela, banku-transferentzia egiteko aukera dago zabalik: ES9030350129111290034483 (Laboral Kutxa).



Erakusketako paneletariko bat.

## Emakume zientzialarien lana, ikusezintasunetik argitara

Durangoko dendetan eta San Agustinen hainbat emakume zientzialariren panelak ipini dituzte ikusgai

**Ekaitz Herrera** DURANGO

San Agustín Kulturguneko sarreran, Euskal Herriko eta nazioarteko hamabi emakume zientzialariren ekarpenak ipini dituzte ikusgai, hainbat paneletan; besteak beste, Dorotea Barnés kimikari iruindarrak egindako ekarpenak, Amena Karimyan astronomo afganistarraren ikerketak, Jeanne Baret frantziarraren botanika-gaiak, eta Suzuko Ainhoa Tamura hizkuntzalari japoniarren biografia laburra. Jessica Ruiz Durangoko alkateorde eta Berdintasun zinegotziak azaldu duenez, "emakumeak ikusezin

egon dira hainbat arlotan, tartean zientzian", eta erakusketa "be-launaldi berrientzako inspirazio iturri eta erakusgarri" izango delakoan dago.

Bestetik, Dendak Bai merkatarien elkarteak ere bat egin du egitasmoagaz, eta emakume zientzialarien lana ipini du ikusgai sareko 24 establezimendutan. Actionbound aplikazioa erabilita, erakuslehoetako QR kodeak eskaneatu eta galdera-erantzunetara jokatu ahal izango dute herritarrek, dendarik denda. Otsailaren 11n Emakume eta Neska Zientzialarien Eguna ospatuko da nazioartean.

## Hirukoa galaren edizio berria bariku honetan jokatuko da

Galdera-erantzunei eta probei hirukoteka aurre egiteko lehia 19:30ean hasiko da, Plateruena Kultur Aterpean



Hirukoa lehiaketako partaideak, iaz. BERBARO

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Bariku iluntze honetan plan saltseroa egin gura duenak aukera apropos-aproposa du: Plateruena Kultur Aterpean Hirukoa galaren edizio berri bat hartuko du, seigarrena. 19:30ean izango da. Lehiakideak, hirukoteka antolatuta, telebistako lehiaketetan legez aritu beharko dira, askotariko galderei erantzuten eta probak egiten. Jakintzari eta ezagutzari loturiko gaiei aurre egin beharko diete, baita abilezia eta talde lana eskatzen duten probei ere. Gatzik eta piperrik ez da faltako, ezta sari eder bat ere. Berbarok bere web atarian ipini du lehiaketan izena emateko inprimakia. 20 talde aritu ahal izango dira gehienez. Durangarrak eta eskualdeko herritarrak deitu dituzte parte hartzera.

## Bide berdeko lehenengo eta hirugarren faseak, amaitzear

**E.H.** DURANGO

Durangoko alkate Mireia Elkorriberen esanetan, "Bide berdeko obrak nahiko arin doaz aurrera". Proiektuaren lehenengo eta hirugarren faseak abenduan hasi zituzten, eta otsail amaieran ailegatuko dira akaberara. Bigarren fasea, zatirik konplexuena, udaren aurretik lizitatu gura dute (1,1 milioi), eta uda pasatu eta gero hasiko dira lanak egiten. Bide berde osatua 2026an zabalitzea gura dute. Merkatu Plazari dagokionez, azpiegitura bizitza komertzial eta sozialerako topagune garrantzitsua izatea gura dute. 11 postugaz, "modernitatea eta tradizioa" batuko direla aurreratu du Elkorriberen.

## Memoria lantzeko ikastaroa emango dute Garain

**E.H.** GARAI

Mankomunitateko adinekoen zerbitzuak memoria lantzeko ikastaroa emango du Garain. Tailerrak otsailaren 11tik apirilaren 1era arteko martitzenean egingo dituzte, 16:30etik 18:00etara, Garaiko kultur etxean. Inskripzioak Mankomunitatearen bitartez egin behar dira, 946 200 546 telefonoan edo [nagusiak@dma.eus](mailto:nagusiak@dma.eus) helbide elektronikoa.

Garain emateaz gainera, honako beste udalerrri hauetan ere emango dituzte antzera bateko tailerrak: Atxondon, Berriren, Elorrion, Mañarian, Abadiñon, Otxandion eta Zaldirarren.



# Atxondo eta Elorrio, kultur sorkuntzarako plaza

Durangaldeko herri biek Udalbiltzaren 'Geuretik Sortuak' kultur egitasmoan parte hartuko dute. Euren proiektuetarako inspirazio iturri lez, Miren Artetxe bertsolariak Atxondon egingo du egonaldia, eta Aitor eta Izaro Arruti zinemagileek Elorrrion

J. D. ATXONDO/ELORRIO

Udalbiltzak *Geuretik Sortuak* kultur bekak esleitu ditu aurten ere. Literaturari, komikigintzari, zinemagintzari eta antzerkigintzari loturiko 30 kultur proiektu hautatu dituzte, eta, horrenbestez, Euskal Herri osoko 30 sortzailek egonaldiak egingo dituzte Euskal Herriko 30 herritan edo herri multzotan, proiektuetarako inspirazio iturria bilatu eta lana gartzeko. Durangaldeari dagokionez, Atxondok eta Elorriok parte hartuko dute kultur egitasmoan.

Atxondok Miren Artetxe bertsolari eta ikerlari hendaiarra hartuko du. Artetxek ipuin bat idatziko du Atxondo oinarri hartuta. Gaiari dagokionez, heriotzari eta haren inplikazioei buruz hausnartzeko baliatu gura du beka, eta heriotza bat ardatz izango duen ipuina Atxondon kokatuko du. "Horrela, Atxondo abiapuntu hartuta, unibertsal den gaiaren askotariko ertzak jorratu gura ditu", azaldu du



Eneritz Agirre Atxondoko alkatea eta Miren Artetxe.

udalak ohar batean. Artetxek egonaldi bat egingo du herrian. Egonaldian, askotariko jende taldeekin espazioa eta denbora konpartitza da helburua, herriko bizimodua, ohiturak eta errealtatea bertatik bertara

ezagutzeko. Horrez gainera, herritarrentzat irekiak diren ekitaldiak antolatzea gustatuko litzaioke. "Oso pozik nago egonaldia Atxondon eginda, nire eguneroko errealtatetik urrun geratzen delako eta An-

botopeko edertasun handi horren barruan dauden edertasun txikiak bilatzeko aukera izango dudalako", adierazi du Artetxek. Udal ordezkariak eta Artetxe hartu-emanetan daude dagoeneko, egitasmoari behin betiko forma emateko.

Elorriok Aitor eta Izaro Arruti hartuko ditu. Neba-arreba andoaindarrek zinemagintzari loturiko proiektua landuko dute. Gidoia oraindino gutziz zehaztuta ez duten arren, "estilo surrealistan euskaldunon frustrazioak erakusten dituen film labur bat sortzea izango da helburua", neba-arrebek udaleko oharrean azaldu dute. Kasu honetan ere egonaldi bat egingo dute Elorrrion, ideiak hartzeko. "Elorriarren aniztasuna ezagutzeko dinamikak sortuko dituzte, eta, herriko sareak gertutik ezagutzuz, film laburreko pertsonaia elikatu ahal izango dute", zehaztu du udalak oharrean.

## Aiartzaguena eta Egia

Udalbiltzaren aurtengo beka irabazi dutenen artean, eskualdeko lagun bi daude: Eñaut Aiartzaguena iurretarra eta Usue Egia durangarra. Biek ala biek komikigintzari loturiko proiektu bana garatuko dute. Aiartzaguenak Ataunen (Gipuzkoa) eta Etxarri-Aranatzen (Nafarroa) egingo du egonaldia; Egiak, Legorretan (Gipuzkoa).

## 'Txalopin Txalo' kantu liburua aurkeztuko dute Atxondon

Liburuaren aurkezpena gaur arratsaldean izango da, Apatan, eskolako eraikin zaharrean

J.D. ATXONDO

Mankomunitateak proiektu berri bat sortu du umeen artean euskararen transmisioa bultzatzeko: *Txalopin Txalo* kantu liburua. Liburuaren aurkezpena herririk herri egiten dabilza eskualdean. Atxondoko aurkezpena gaur izango da, 17:00etan, eskolako eraikin zaharrean.

Herri tradizioan ume txikiekin jolasteko eta kantatzeko ohikoak izan diren abestiak batzen ditu *Txalopin txalo* liburuak. Lan honen helburua ahozko ondarea berreskuratzea eta transmitzea da, Durangaldekoa batez ere. Horretarako, edadeko herritarrengana jo dute, gaur egun bizirik dauden kantak jasotzeko bideo grabazioz. Durangaldeko adineko 10 pertsonen testigantzetatik jaito da proiektua, tartean Atxondoko testigantzak. Egitasmoa Berbaro euskara elkarteak dinamizatzen du eta Labayruk egin du ekoizpen lana.

## Euskararen erabileran zelan eragin hausnartu dute Izurtzan

Herritarrek kontzientziazioan eragiteko beharrezana plazaratu zuten martitzenean egindako batzar zabalean

J.D. IZURTZA

Udala euskara bultzatzeko plan estrategikoa diseinatzen dabil, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) bitartez. Ibilbide horren barruan, herritarrekin saio zabal bat egin zuten martitzenean, Izurtzan. Denen artean gogoeta egin zuten euskarari buruz. "Saio aberasgarria izan zen. Euskararen egoeraren ikuspegi osoago bat izateko eta aurrera begira landu beharreko eremuak identifikatzeko balio izan zuen", adierazi du Oihane Irastorza alkateak.



Izurtzarrak plaza inguruan berriketan.

UEMATik euskara teknikari bat bertaratu zen eta berak gidatu zuen saioa. Lehenengo, euskararen erradiografia orokorra egin zuen, Euskal Herriko eta eskualdeko datuekin. Ondoren, Izurtzan zentratu ziren. Udalak egindako inkestan jasotako erantzunekin eta saioan bertan herritarrek plazaratutakoekin, hainbat ondorio atera zuten; esaterako, kontzientziazioan eragiteko premia, batez ere nagusien artean eta aisialdi guneetan. Izurtzan euskara jakintza maila handia den arren, plaza inguruan batzen diren heldu askok gaztelaniara jotzeko joera dutela plazaratu zen batzarrean.

Batzarrean jasoriko iritziak euskara bultzatzeko plan estrategikoa diseinatzeko erabiliko dituzte.

## Oroimena lantzeko eta erorikoak prebenitzeko tailerrak Mañarian

Mankomunitateko adinekoen zerbitzuak emango ditu tailer biak, Ursula Donea elkartearen lokalean

J.D. MAÑARIA

Durangaldeko Mankomunitateak hainbat tailer antolatzen du adinekoentzat eskualdeko herritan urtero. Eurretari bi Mañarian ere egingo dituzte. Biak Ursula Donea elkartearen lokalean izango dira.

Ikastaro bat oroimena lantzeko izango da. Otsailaren 10ean hasi eta martxoaren 31n amaituko da. Klaseak astelehenero izango dira, ordu eta erdikoak, 16:30etik 18:00etara. Aritu batek memoriak zelan funtzionatzen duen azalduko

du ikastaroan, eta bertaratu direnek memoria lantzeko hainbat ariketa egingo dute, besteak beste. Tailerraren helburua burua sasoian mantentzearen garrantzia azpimarratzea da, zahartze aktiboa bultzatzeko. Bigarren tailerra erorikoak prebenitzeari buruzkoa da eta otsailaren 12an emango dute, 10:00etatik 11:30era. Mankomunitateko ikastaroetan parte hartzeko izen ematea [nagusiak@dma.eus](mailto:nagusiak@dma.eus) helbide elektronikoan egin daiteke; baita 946 200 546 telefonoan ere.

# GREMIOEN GIDA

 **Zurgintza**

**leike** Eraberritzeak Interiorismoa Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



[www.leike.eus](http://www.leike.eus)  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf: 94 681 72 29

 **Zurgintza**

**ATERPE** ARBOTZAR

EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar  
635 74 84 65  
[www.carpinteriaaterpe.com](http://www.carpinteriaaterpe.com)

 **Dekorazioa**

**JAIO**barnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberitzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
[www.jaiobarnizatuak.com](http://www.jaiobarnizatuak.com)

 **Elektrizitatea**



**ELECTRICIDAD JON**

622 684 284  
[electricidadjon@outlook.es](mailto:electricidadjon@outlook.es)

 **Iturgintza**

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
[mallabiena@mallabiena.com](mailto:mallabiena@mallabiena.com)


 **Iturgintza**



**UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790  
[unaigaray@yahoo.es](mailto:unaigaray@yahoo.es)





# Gazte feministek Biribilketa egingo dute Iurretan

Euskal Herriko Neska Gazteak elkarteak udazkenean egingo duen III. Baterajotzera begira, Durangaldeko gazte feministek jardunaldi bat antolatu dute motorrak berotzen joateko. Biribilketa otsailaren 8an izango da, 18:30ean hasita

**A. Basauri** IURRETA

Durangaldeko Gazte Feministak taldeak deituta, zapatuan Biribilketa egingo dute Iurretan. Euskal Herriko Neska Gazteak udazkenean egingo duten III. Baterajotzearen harira antolatu diren jardunaldi bietako lehenengoa izango da, Iurretako Auskari gazte feminista taldeko Maitane Totorikak azaldu duenez. Apirilean aurreikusi dute bigarrena egitea, Zornotzan.

Besteak beste, Iurretako, Durangoko, Elorrioko, Berrizko eta Zornotzako gazte feministek zaturako prestatu duten saioan 60 bat gazte feminista elkartzea aurreikusi dute. San Valentín eguna gertu dagoela baliatuta, egun horren bueltan zabaltzen diren rola eta bikote ereduak buruz hausnartu eta eztabaidatuz hasiko dute eguna. San Valentín tailerra 18:30ean hasiko dute, plazan. Ondoren, poteoa egingo dute.

Montoste elkartearen ezagutza jolasak eta afaria egingo dituzte, 21:00etan. "Durangaldeko gazte feministek elkar ezagutzeko eta



Iurretan egindako azken Biribilketako irudi bat. AUSKARI

harremantzeko" aukera izango dute. Ondoren, Irati Otadui konzertu akustikoa emango du. Txartelak Portalekua, Urtza, Intxaurre, Castet eta Oreka tabernetan daude eskuragai, sei euroan.

Asteburuko topaketa hauek gainera, Biribilketa Eguna ospatuko dute datorren ekainean. Aurtun, jaialdi horren seigarren edizioa izango dela azaldu du Maitane Totorikak.



2022ko 'Oporrak bakean'.

## Martxan da haur sahararrak udan etxean hartzeko kanpaina

Lajwad elkarteak eta udalak dei egin dute 'Oporrak bakean' programagaz ume sahararrak etxean hartzera

**A. M. ELORRIO**

Elorrioren ere martxan ipini dute udan ume sahararrak etxean hartzeko 'Oporrak bakean' kanpaina. 'Oporrak bakean' kanpainagaz, basamortua utzi eta udako hile bi Euskal Herrian igarotzeko aukera eskaintzen zaie urtero hainbat ume sahararri. "Ekintza xume horren bitartez, ume horiei on egiteaz gainera, sahararrekiko atxikimendua ere erakusten dugu. Trukean, herrialde jator horren berri eduki, haien ohiturak ikasi eta haur horien bizi-poza partekatzekeo parada ezin hobea jasotzen dute

harrera familiek. Gogoia baino ez da behar haur saharar bat udan etxean hartzeko", azaldu du Elorrioko udalak ohar baten bitartez. Hona etorrita, umeek beste errealitate bat ezagutzeko eta osasuna eta elikadura orekatzeko aukera dutela azpimarratu dute kanpainaren sustatzaileek.

Martxoaren 15a izango da kanpainan izena emateko azkeneko eguna. Bien bitartean, informazio gehiago 605 743 467 (Esti) eta 656 714 551 (Maku) telefono zenbakietara deituta eta [oporrbakean.eus](http://oporrbakean.eus) webgunean jaso daitekeela azaldu dute antolatzaileek.

## Udarako prest izan gura dute Mainondoko kirolgune berria

**Aitziber Basauri** OTXANDIO

Asfaltados y Construcciones Morga S.L. enpresak eraikiko du kirolgune berria Mainondon. Udalak otsailean aurreikusi du lanak hastea, eta kirolgunea udarako prest egotea gura dute. Enpresak bost hilabeteko epea du lanak amaitzeko. Aurrekontua 818.000 eurokoa da.

Mainondon erabilera anitzeko zelaia egokituko dute eta kalistenia praktikatzeko gunea sortuko dute, udal arduradunek azaldu dutenez. Mainondoko kirolgune berriak pump track pista bat ere izango du, eta, zehaztu dutenez, espaloia egingo dute Antonbentako zubitik frontoiraino.

## Zornotzako Emakume nekazari eta artisauen azoka, martxan

Zabalik dago Zornotzako Emakume Nekazari eta Artisauen XXVII. azokan izena emateko epea



Artxiboko irudia.

**A. M. ZORNOTZA**

Martxoaren 8an Zornotzako Emakume Nekazari eta Artisauen XXVII. azoka egingo dute. Otsailaren 16ra arte eman daiteke izena bertan parte hartzeko. Azoka hau emakume baserritar eta artisauen lana aitortzeko eta babesteko helburuagaz sortu zen, eta, besteak beste, gozoak, ogia eta haragia salduko dituzte bertan. "Jardunaldi honeguz, emakume baserritar eta artisauen lana aitortu gura dugu. Euren funtzioa ezinbestekoa izan da familien ekonomiarentzat eta euskal gizarte, kultura eta tradizioarentzat", azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak.

Izen ematea Zornotzako Udaren webgunearen bitartez egin daiteke, eta Euskal Herrian egoitza duten emakume ekoizle eta artisauek parte hartu dezakete.

## Berrizko gaztekuak eski irteera antolatu du Alto Campoora

**A. M. BERRIZ**

Asteburuan, Berrizko gazteku Alto Campoora (Espainia) joango dira. Herriko gaztekuak antolatu du irteera. Batez ere, hasiberrirei zuzenduriko irteera izango da; izan ere, pista berde eta urdinetan ibiliko dira. Gaur irten eta zapatuan bueltatuko dira.

Gaztelekua itxita egongo da domeka honetan, baina otsaileko hainbat ekintza antolatu dute bertan. Besteak beste, hilaren 15ean esperimentazio eta *tie dye* (kamisetak tindatzeko ikastaroa) tailerrak egingo dituzte. 22an mendi irteera egingo dute, eta 23an herriko inauteriak prestatzeari ekingo diote.



# Oraindik ez zara ANBOToko whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken  
albisteak jaso gura  
badituzu batu Anbotoko  
whatsapp kanalera



**Eskaneatu  
QR kodea**

\* Izan zaitez berriemaile ere.  
Bidali zure argazki eta bideoak







## Anbotokideen txokoa

### OTSAILEKO ZOZKETAK



**Xiberu tabernan** bi gosari bikoitz. Zornotza.



**Errigoraren eskutik** Euskal Herriko produktuen otzara.



**Goazen** kontzerturako sarrerak. Zornotza Aretoa. Martxoak 1.

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



# Txanporta Zine Kluba, zinemazaleen gune berria

Zinemazaleak batzeko, Txanporta Zine Kluba sortu dute Abadiñon. Lehenengo saioa otsailaren 23an izango da, 19:00etan; *Azken erromantikoak* filma emango dute. Sarrerak otsailaren 10etik aurrera egongo dira eskuragarri, Mediatekan eta Errotan

#### Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñon, Zelaietan, eskaintza kultural bat emateko asmoz, hainbat zinemazalek Txanporta Zine Kluba sortu dute. "Ikusten genuen Txanporta Kultur Etxeak pelikulak eskaintzeko aukera ematen zuela, eta ez zaiola ematen erabilera hori. Kultur Etxean aretoa dago, herrian ez daukagu zinema eskaintzarik, eta pentsatu genuen toki aproposa genuela horretarako. Baina ez bakarrik zinema ikusteko, baita herritarrek batzeko eta zinemazaleon artean solasalditxo batzuk egiteko", azaldu du Igor Salterainek, bultzatzaileetarikoa batek.

Bultzatzaileek ekimena lehenago martxan ipini gura zuten arren, lehenengo emankizuna otsailaren 23an izango da. "Lehenengo txanda honetan hiru emankizun planteatzen ditugu. Datoren hiru hileetan, hilean domeka batean. Eta ondo irteten bada eta herritarren artean erantzun ona badu, aurrera begira jarraitzea planteatzen dugu", gehitu du Salterainek.



Txanporta kultur etxea.

Txanporta Zine Klubak eman- godoen lehenengo pelikula *Azken erromantikoak* izango da. Ainhoa Urien abadiñarrak gidatuko du solasaldia, eta Ainhoa Olaso zi-

nemagile eta Durangoko zine klubeko bideratzailea izango dute gonbidatu. Otsailaren 23ko saiorako sarrerak otsailaren 10etik aurrera eskuratu ahal izango dira, Mediatekan eta Errotan.

## 'Ombuaren itzala' filma ikusteko aukera, otsailaren 13an, Mallabian

Pello Mari Otaño bertsolari-poetaren bizitzari buruzkoa da



Joseba Usabiaga eta Sara Cozar.

#### Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Tasio filmean aktore lanak egin zituen Patxi Bisquertek zuzendutako *Ombuaren itzala* filmean emanaldia egongo da otsailaren 13an, 19:00etan, Mallabian, Kontzejuzarren. Crowdfunding bidez, auzolanean, egindako pelikula Pello Mari Otaño Zizurkilgo bertsolari-poetaren bizitza eta obrari buruzkoa da. Pello Mari Otañoren papera Joseba Usabiaga aktoreak egin du. Filma emanaldiaz gain, aurkezpena ere egongo da, Patxi Bisquertek aurkeztuko du.

**PATXI BISQUERT  
ZUZENDARIAK  
AURKEZTUKO DU,  
19:00ETAN,  
KONTZEJUZARREN**





Verter Recycling zabortegia amildu eta gero, Zaldibarko Eitzaga auzoan.



2020ko otsailaren 15ean egindako manifestazio jendetsua.

# Bost urteren ondoren, zabortegiko auzibidea oraindino zabalik

Atzo, otsailak 6, bost urte bete ziren Verter Recycling zabortegia amildu zenetik. Urteurrenaren harira, oroimen ekitaldia egingo dute Eitzagan, domekan

**Zaldibar** JONE GUENETXEA

Milaka hondakin tonaren amiltzea. Horixe gertatu zen 2020ko otsailaren 6an Zaldibarko Verter Recycling zabortegian. Hondakindegiko langile bi hondakin artean harrapatuta hil ziren: Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran. Durangaldean bertan inork gutxik ezagutzen zuen hondakindegia albistegi guztietan azaldu zen. Euskal Herrian inoiz gertaturiko ingurumen hondamendirik handienetarikoaren dimentsioa kapituluka aletu zuten. Hondakin artean aurkituriko amiantoak alarma gorria piztu zuen. Suteak piztu ziren mendi magalean barreiatutako hondakinen artean. Airearen kalitatea izan zen hurrengo ardura. Izan ere, dioxina eta furano tasa handiak topatu zituzten hurrengo egunetan. Zaldibarko, Ermuko eta Eibarko bizilagunei leihoak zarratzeko eskatu zieten.

Egoera horren aurrean, Eitzagako auzokideek eta inguruko herritarrek ardura adierazi zuten.

Ardura eta baita haserrea ere. Ezinegon hori guzti hori otsailaren 15ean Eitzagan amaitu zen manifestazio jendetsuak erakutsi zuen. Zabortegia amildu izanaren ondorioz, auzibide bi zabaldu zituzten Durangoko Epaitegian. Lehenengoa zarratu egin zuten, hiru akusatuek (enpresaren arduradunak) fiskaltzagaz eta hildako beharginen familiekin akordioa lortuta.

Bigarren auzibidea, ingurumen delituena, oraindino instrukzio fasean dago. Zaldibarko Udala akusazio legez aurkeztu da prozesu judizial honetan. Zaldibar Argitu, Ekologistak Martxan eta beste eragile batzuk ere akusazio legez dabilta horretan. Zaldibarko Udalak adierazpena onartu du azken osoko bilkuran, aho batez, amiltzearen inguruko erantzukizun guztiak argitzea eskatzeko.

**"Gertatu zena ahaztu egin da"**

Auzokideei dagokienez, "ardurartuta" jarraitzen dute hona-

kindegia egonkortasuna dela eta. Izan ere, Jaurlaritzaren 2023ko txosten batek zabortegia egonkortasuna "arriskuan" zegoela erakutsi zuen. "Zigilatzea behin behinean egin dute eta sentsazioa dugu honek ez duela amaierarik. Eta prozesu judizialagaz ere berdina gertatzen da", azaldu du Oscar Morales auzokideak. Bestalde, Etxebarri eta Olaetxe baserrietako bizilagunek espropiazio prozesuan "borrokan" jarraitzen dutela azpimarratu du Moralesek. Inguruko lurjabeek zabortegia egongortzeko prozesuan jasan duten albokaltza izan da. Kutsatutako lurrik inguru horretan jarraitzen dute, eta horietako batzuk "babestu barik" daudela diote. "Gertatu zena ahaztu doa apurka-apurka. Eitzagan 20 lagun bizi dira, baina hondakindegian zerbait gertatuz gero, edo ingurumen eraginen bat balu, inguruko herrietan ere ondorioak pairatuko lituzkete", argitu du Eitzagako bizilagunak.

## Bost urte

### 2020ko otsailaren 6a

- Verter Recycling hondakindegia amildu zen.
- Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran beharginak hondakinen artean harrapatuta hil ziren.

### 2021eko iraila

- Enpresako hiru arduradunek akordioa adostu zuten fiskaltzagaz eta familiekin, eta kartzela saihestu zuten.

### 2020ko otsailaren 8a

- Hondakin artean suteak piztu ziren eta aire kutsadura handitu zen. Dioxina eta furano tasa handiak topatu zituzten.
- Inguruko bizilagunei leihoak zarratzeko eskatu zieten.

### 2023ko ekaina

- Jaurlaritzako txosten baten arabera, zabortegiaren egonkortasuna "arriskuan" dago.

### 2020ko otsailaren 15a

- Manifestazio jendetsua Eitzagara.

### 2025eko otsaila

- Ingurumen delituen inguruko auzibidea instrukzio fasean.
- Zaldibar Argituk oroimen ekitaldia antolatuta du Eitzagan otsailaren 9rako, 12:30ean.



Zaldibar Argituko kideak, Durangoko epaitegiaren aurrean.





# Euskal Herriko Ardi-ile Moztaileen Txapelketa iragarri dute San Blasetan

Irailaren 7an Abadiñon erabakiko da 2026ko martxoaren 4tik 7ra Zeelanda Berriko Masterton herrian jokatu den Golden Shears World Championship munduko txapelketan Euskal Herria nork ordezkatu duen lehenengoz

**Jone Guenetxea** ABADIÑO  
San Blas Azoka jendetsua ospatu zuten abadiñarrek eta bertaratu ziren guztiek joan zen astelehenean. Txistulariak, bertsolariak, herri kirolak, idi probak eta kontzertuak egon ziren egitarauan, besteak beste. Jaizaleek eguraldi ona lagun izan zuten. Taloa jan eta Zelaian egokitutako postuen inguruan bueltatzea ematea hutsik egiten ez duen plan horietariko bat izaten da beti. Astea behar den moduan hasteko aukera ezin hobea izan da, gainera. Bati baino gehiagori kostatuko zitzaion martitzenari ekitea.

Baserrietako ekoizpen eta ustiapenen erakusle hori baliatuta, Euskal Herriko Ardi-ile Moztaileen Txapelketaren lehen edizioa irailaren 27an Abadiño-ko probalekuan jokatu dela jakinarazi zuten. Euskal Ardi

Moztaileen Elkarteak (EAME) antolatu du txapelketa eta egun osoko egitaraua izango du.

Prensaurrekoan azaldu zuten, historian lehenengoz Euskal Herriko moztaille txapeldun bat izango da 2025ean. Gainera, 2026ko martxoaren 4tik 7ra Zeelanda Berriko Masterton herrian jokatu den Golden Shears World Championship munduko txapelketan parte hartuko duen selekzioa hautatzeko proba baliagarria izango da Euskal Herriko Txapelketa. Bederatzi lagunek osatuko dute talde hori. Munduko Txapelketa hiru urtean behin antolatzen dute. Azpimarratzekoa da lehia hau ipar eta hego hemisferioen artean txandaka antolatzen dutela.

Bestalde, antolatzaileek nabarmendu zuten mundu mailako ardi-ile moztaille ekitaldi eta txapelketetan Euskal Herria

ordezkatu dutela. "Golden Shears Munduko Kontseiluak aho batez onartu zuen Euskal Herriari beste herrialdeekin batera lehiatzeko aukera ematea; besteen artean, Espainiak eta Frantziak", azaldu dute prentsaurrekoan. "Mugarri historikoa da", gehitu dute txapelketaren bultzatzaileek.

## Asteburuan idi probak

San Blas jaietako egitarauaren barruan, asteburuan idi proben txanda izango da. Izan ere, Abadiño-ko probalekua sona handikoa da kirol honen munduan.

Hurrengo asteburuan ere egitarauan jai giroa izango da nagusi. Otsailaren 15erako XXXV. Burduntziko Bildots Txapelketa antolatu dute Abadiñon. Eta, jakina, eguerdian (14:00) bildots bazkarian batuko dira probalekuan.



Euskal Herriko Ardi-ile Moztaile Txapelketaren aurkezpena, astelehenean, San Blas Azokan.







## Patioko lanak hasteko prest

Zaldibarko Udalak eskolako patioa handitzeko eta eraberritze-ko obrak hasiko ditu, eskola komunitateagaz elkarlanean. Udalak 250.000 euroko diru atala erabiliko du lanok egiteko, eta, horri eskerrak, eskolako patioak 1.500 metro karratuko azalera gehigarria irabaziko du, berdegune bat barne. Obrak gauzatzeko proiektua lehiaketa publikoan dago jada.



## DURANGALDEA ASTEON

### KSKA Seletorrek domekako azokan Abadiñon

**ABADIÑO** San Blaseta azoka joan berri den arren, nekazari eta artisauek beste hitzordu bat dute domeka honetan, otsailak 9, Abadiñon: hileroko bigarren domekako azoka. Betiko moduan, 10:30etik 14:00etara izango da. Besteak beste, nekazari, artisauek eta talogileak egongo dira. Bestalde, Kaleko Soinuak Kaleak Astintzen taldeak musika ipiniko du.



UCLA KALIFORNIARAKO LOS ANGELES UNIBERTSITATEA

### Gerra zibileko irudi argitaratugabeak ikusgai

**DURANGALDEA** Kaliforniako Los Angeles Unibertsitateak (UCLA) Espainiako gerra zibileko irudi argitaratugabeak kaleratu ditu; eurentariko batzuetan Durangoko eta Zornotzako irudiak ageri dira, 1937ko maiatzekoak, frankistek udalerririk birrindu ostekoak. Irudietan denerik ikusi daitezke; soldadu frankistak Durangoko Kurutzia kalean posta jasotzen zein Sanagustinalde kalean jaten, besteak beste.



PARTE HARTU



### Muguruzaren kontzerturako sarreren zozketa

**DURANGO** Fermin Muguruzak kontzertu berezia emango du Durangon, 40 Minutu Rock jaialdiaren bueltan. Durangoko KSKA kolektiboak ere parte hartuko du emanaldian. Otsailaren 13an izango da, Plateruena kultur aterpean. ANBOTOK sarrera bikoitz bi zozkatuko ditu bere irakurleen artean; [anboto.org/zozetak](http://anboto.org/zozetak) atalean parte hartu daitezke (astelehenera arte, 11:00etan).

## GUTUNAK

### Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**  
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

# anboto

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

**Bixente Kapanaga, 9**  
**48215 lurreta - Bizkaia**  
**Tel.: 946 816 558**  
**Erredakzioa:** 946 232 523  
**Publizitatea:** 946 217 902

**Lege gordailua:**  
BI-2268/01  
**ISSN:**  
1578-7028  
**Tirada:**  
12.000 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazioa:** Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso Armendia.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA


DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua





## LABIRINTOA









**Aritz Maldonado** DURANGO

Iberiar penintsula gurutzatzen zebilela, 1936ko altxamendu faxistak Lodosan harrapatu zuen Anastasini zirku italiarra; gertaera hori ardatz hartuta, Miren Amuriza berriztarrak eta Malen Amenabarrek album ilustratua ondu dute, *Anastasini zirku*; Denonartean argitaletxeagaz kaleratu dute. "Espainiako Gerrari buruzko kontakizun bat dugu denok buruan. Hori aldatzea izan da erronkarik handienetariko bat", esan dute.

**Nondik dator Anastasini zirku?**

**Miren Amuriza:** Anastasini zirku jatorri italiarreko zirku zen. Penintsula behetik gora zeharkatu zuten. Istorioa 1936ko udan kokatzen da, uztailean Lodosara heldu ziren, altxamenduaren aurreko egunetan. Ikusizuna egin zuten, baina altxamendua hasi zen, eta handik egun pare batera zirku parte hartzaile guztiak desagerrarazi egin zituzten. Albiste horren berri 2017ko abuztuan izan nuen, Berria egunkariaren bitartez. Ikusi, gorde eta Maleni bidali nion, zeozer egiteko.

**Erditze luzea izan du, ezta?**

**Malen Amenabar:** Gutxi gorabehera, zazpi urteko prozesua izan da. Hasieran, album ilustratu bat sortzen hasi ginen, baina aukera gutxi dago horrelakoak euskaraz kaleratzeko; birritan ahalegindu gara Etxepare lehiaketara aurkezten, baina umeei zuzenduta dago gehien bat, eta konturatu ginen hor ez zuela funtzionatzen. Hiru-lau ahaleginen ondoren, Denonartean argitaletxearen bitartez argitaratu dugu. Nabarmendu gura genuke umeei ere irakurri dezaketela, baina ez da espreski umeentzako album ilustratu bat. Fikziozko istorio bat kontatzen du, errealtate horretan kokatuta, eta guk lizentzia batzuk hartu ditugu; irudien kasuan, gau bateko kontakizuna da, gauez hasi eta eguna argitu artekoa. Narrazioa, beharbada, luzeagoa da.

Faseka egin dugu. Tartean, Bikoteka deitzen den tailerlean ere parte hartu genuen. Ilustratzaile bat eta idazle bat proiektu bat garatzeko batzen dira astebetetz. 2022an egon ginen gu, Iñigo Astizegaz eta Maite Mutuberriagaz. Hor azkeneko emaiatzara gehien hurbiltzen dena garatu genuen. '

# "Inspirazioa ez dator iluminazio batetik, lana dago atzean"

**LITERATURA** Miren Amurizak eta Malen Amenabarrek erakusketa ipini dute Durangoko Arteka liburu dendan; zapatuan 'Anastasini zirku'-ren aurkezpena egingo dute, eta, besteak beste, sormen prozesua azalduko dute, eta ilustrazio originalak erakutsi



Malen Amenabar eta Miren Amuriza.

**Zein izan da erronkarik handiena?**

**M. Amuriza:** Hasieran umeentzako lan batera begira geundenez, askoz tonu eta irudi infantilagoak ziren. Testu honek duen ezaugarri nagusi bat, memoria kolektiboaren parte diren gertakizunetan lez, *Titanic efektua* delakoa kontuan hartu behar dela da, hau da, badakigu zer pasatuko den. Ondorioz, beste bide batzuk topatu behar dituzu kontatu gura duzuna kontatzeko, eta, bestetik, irakurlea zelanbait harrapatzeko. Testuaren lehenengo bertsioetan lizentzia horien arteko aldea handiegia zen. Indar handiko istorio bat tonu *naifean* kontatzen zen, eta gehitzen diozun edozer gehiegi izan daiteke; kasu horretan, testua oso *naifa* zen, eta gerora ikusi dugu ez zituela hainbeste elementu behar.

**M. Amenabar:** Horrelako proiektu bat hastean, erronka ipintzen diozu zeure buruari, eta, gutxitu barik, zeozer gehitu egiten da normalean. Kasu honetan, gehitzean, istorioak esentzia galtzen zuela konturatu ginen; testua eta irudia lotuta joan behar dira, eta azkenengora arte ez genuen lortzen guztiz borobiltzea. Bertsioak

**"BESTE LAN BATZUETAN EZ DUT HAINBESTE KONPARTITU, HAU KOLEKTIBOAGOA DA"**

amaitu, baina zeozer falta zala eta zeozer sobra zegoela ikusten genuen. Soiltze ariketa bat izan da.

**Ez da elkarregaz lan egin duzen lehenengo aldia.**

**M. Amenabar:** Pertsonalki, orain urte bi ezingo nuen hau egin, hainbat gauzagaitik. Niretzat oso potentea izan da arlo pertsonalean zein profesionalean; teknikoki gauza batzuk egitea ez da erraza izan. Hori bai, amaituriko lan bakoitzetik zeozer ikasi dut; koloreraren erabilera, adibidez. Eta Mirenegaz oso pozik nago, asko konpartitu dugulako. Beste lan batzuetan ez dut, beharbada, hainbeste konpartitu; hau kolektiboagoa izan da.

**M. Amuriza:** Konpartitu eta ikasi, ze askotan idazleok testua idazten dugu, osorik, eta ilustratzaileari bidali gero, apaintzeko. Bai lan honetan eta baita *Titiritarin* ere, ikasi dudana gauzatariko bat da ez dela zertan testua izan lehenengo eta irudia gero; biak paraleloan sortzea posible dela. Eta kasu honetan, bertsioetariko bati irudien *storyboard*-a sortzetik ekin genion. Horren emaitza, kontakizun bat narrazio biren bitartez; alde batetik, testuaren bitartez kontatzen dena, eta bestetik irudien bitartez kontatzen dena. Biek bat egiten dute, baina euren bidea egiten dute. Oso gutxitan gertatzen da horrelakorik, baina polita izan da bidea alderantziz egitea ere. **Bakardadean egiteko lantzat hartu dira idaztea eta margotzea.**

**M. Amenabar:** Nire ustez, konpartitzea da bide bakarra. Sare eroso horiek eraikitzea garrantzitsua da.

**M. Amuriza:** Idazleen kasuan, nire adin bueltan, eta batez ere emakumeen artean, bagabiltza horri buruz gogoeta egiten, idazle kanonikoaren irudi horri buruz, inspirazio txinparta horri itxaroten dabilena, ia dibinoa den izaki hori. Inspirazioa ez da existitzen, beharra da. Guk berba egiten dugu, elkarren berri dugu, eta proiektu horiei buruz ekarpenak egin ditzakegu.

**Zer ikusi daiteke erakusketan?**

**M. Amuriza:** Aurkezpenari izena ipini diogu: *Nola ez egin album ilustratu bat* (barrez). Prozesuan, akats deitzen diegun horietatik izandako irakaspenak azaltzen ditugu.



# Zornotza Aretoko egitaraua aurkeztu dute

**KULTURA** Zornotza Aretok ekainera bitarteko egitaraua aurkeztu du; Heitxi zornotzarrak bere debuteko lana aurkeztuko du martxoan; asteburuan 'Itzulera' (Dejabu konpainia) eta 'Ensayo General' antzezlanak ikusteko aukera egongo da

**Aritz Maldonado** ZORNOTZA

Zornotza Aretok datozen hiletan izango duen kultur eskaintza aurkeztu dute aste honetan. Ohikoa den moduan, musika, antzerkia eta familientzako ikuskizunak programatu dituzte. Eider Etxeandia 'Heitxi' musikari zornotzarrak eta Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak parte hartu zuten prentsurrekoan. Etxeandia *Berreraikitze aroa* debuteko lana aurkeztuko du kulturgunean, martxoaren 7an. "Oso berezia da norbere lana norberaren herrian aurkeztu ahal izatea, oraindino gehiago lehenengo diskoa izanda", azaldu zuen. Zornotzarrak doinu elektronikoak eta musika tradizionalagoa uztartzen ditu lan honetan, trikitia eta panderoa oinarri dituela. "Musikalki hainbat estilo jorratzen dut; ez dut gura aterik interik", argitu zuen. Zuzenekoak boskote formatuan egingo ditu, Onditz Ugarte, Ane Falagan eta Urtza Jauregi zor-



Eider Etxeandia 'Heitxi'. IRATXE ETXEANDIA

notzarren eta Garazi Arriaga gernikarraren parte hartzeagaz. Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak kulturak Zornotzan duen garrantzia nabarmendu du aurkezpenean: "Zornotza Aretoa ezinbesteko espazioa da

herriko kultura dinamizatzeko, eta egitarau hau udalak duen konpromisoaren isla da". Programazio berria asteburuan hasiko da, *Itzulera* (Dejabu konpainia) eta *Ensayo General* (Barnarte) antzezlanekin.



'Zepo zapo'. MARKELIÑE

## 'Zepo zapo'-gaz kultur ziklo berria hasiko da gaur Berrizen

**ANTZERKIA** Markeliñeren 'Zepo zapo'-k gerrari eta adiskidetasunari buruzko istorioa kontatzen du

**A. M. BERRIZ**

Markeliñe antzerki konpainia zornotzarra *Zepo zapo* lanagaz ospatzen dabil konpainiaren 40. urteurrena; 2000. urtean sortu zuten *Mamburu* ikuskizunaren bertsio berrikusia da hau, zoritxarrez gaurkotasuna galdu ez duena; izan ere, obrak gerrari eta adiskidetasunari buruzko istorioa dakar. "Zepo eta Zapo elkarren aurka borrokatzen dabilzan soldadu bi dira; berez gatazka baten erdian egon arren, elkarregaz gustura gaude, euren arteko borroka sekretupean gorde behar duten arren. 'Zergaitik gara aur-

kariak, elkarregaz gustura bagaude?' galdetzen diote elkarri", azaldu dute konpainiak.

Itziar Fragua eta Nerea Martinez aktoreak dira protagonistak. Urtarrilaren 3an egin zuten lehenengo emanaldia, Zornotza Aretok. Otsailean Gijonen (Espainia) egingo den Feten azoka entzute-surako hautatu dituzte.

**SYO, etxean**

Apirileko oportetara bitarteko egitaraua aurkeztu dute Berrizko Kultur Etxean oraintsu. Otsailean, adibidez, SYO talde berriztarrak kontzertua emango du.



GAI LIBREAN

MIREN ERDOIZA MUJIKA BEHARGINA

## Joan ikustera

Bi hilabete eta erdi igaro dira azken zutabea idatzi zenuenetik. Azaroan manga laburrean zindoazen lanera, eta galtzerdiak soberan zenituen udazkenak bete-betean harrapatu bagintuen ere. Espainolez kantatzen zuten taldeen festibala jarri zenuen jomugan orduan, eta ate-joka dugun 40 Minutu Rock jaialdiari gorazarre ere egin zenion.

Abadiño San Blasen anisetan itota ibili zela kontatu dizute lagunak, eta bedeinkatutako kordelak ekarri dizkizute Zaballako presoek emateko. Astebetean Ferminek "sarri-sarri" kantatuko du Plateruenan, eta zuk hamabi urte izango dituzu berriro, eta "ye, ye, ye"-ka arituko zara lagunekin, Ikastolako jaialdiko abestien errepertorioa glotisa erre arte kantatuz. Orduan gogoratuko zara Martuteneko lagunekin, manga laburrean zindoazen egun harekin, presoak saltoka eta brinkoka ikusi zenituen bideoarekin.

6 hilabete falta dira Zetak-ek Ilunbe hiru egunez konkistatzeko, eta lagunak emozionatuta esan dizu sarrerak aspaldi erosi dituela. Ahaztu zaizu ETSk noiz iragarri zuen bere 20. urteurreneko kontzerturako data, baina gogoan daukazu harritu zintuen datu bat: sarrerak lau orduan agortu ziren. Izarok maiatzaren 31n itxiko du bere bira BECen, eta aretoa gainezka egongo dela diote orain arteko salmentek; otsailaren 7a da gaur. Lanera ordu laurden lehenago sartu zara, 09:00etan Ferminen kontzerturako sarrerak erosteko. Itxaron-zerrenda birtualean 423. postuan zaudela diotsu pantailak.

Lagun batzuek asteburuan Londresera bidaia egingo dutela jakin duzu berriki. "Kontzertuek ikusi eta hurrengo egunien Durangora" da plana. Hegazkin bi hartuko dituzte, eta apartamentua AirBnBn. Eguna esnatu gabe dagoenean ateratzen zara egunero

etxetik lanera joateko, eta eguzkia aspaldi desagertuta dago etxera heltzen zarenean. Ez duzu udako oportetara pentsatzeko astirik, burutik pasatu ere ez zaizu egin ezer planifikatzea oraindik. Izan ere, nahikoa daukazu hurrengo eguneko bazkaria erabakitzearrekin. Oheratu zara eta lagunei mezua bidali diezu: "Erosi duaz Residenterako sarrerak. Ein bizumek". Lagunak segituan erantzun dizu: "Noz zan?". "Uztailak 27", zuk.

"Martxa honetan Durangoko Jaixetako kartela urte batetik bestera ataraku", entzun diozu albokoari.

Kamiseta termikoak erosi dituzu gaur. Etxera heldu, zapatak kendu eta artilezko galtzerdiak garbigailura sartu dituzu. Mugikorra hartu duzu berriro. Zapatuan 40 Minutu Rock Landakon. "Joan ikustera, entzutera, sentitzera, bizitzera", diotsazu zeure buruari.

"Eta gero geroak". Hori (ere) esan diozu.



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

## BARIKUA 7

**ATXONDO Aurkezpena**  
'Txalopin Txalo' kantu liburua.  
*Eskola zaharreko erabilera*  
*anitzeko gelan, 17:00etan.*

**BERRIZ Antzerkia**  
'Zepo Zapo' (Markeliñe).  
*Kultur Etxean, 17:00etan.*

**DURANGO Lehiaketa**  
Abesti Feministen VII. Lehiaketara  
aurkezteko epea zabalik dago.  
*Durango udaleko webgunean,*  
*otsailaren 14ra bitartean.*

**DURANGO Lehiaketa**  
*Hirukoa VI. Edizioa.*  
*Plateruenean, 19:30ean.*

**ELORRIO Deialdia**  
Gaztetxearen 37. urteurrenerako  
batzar zabala. Gero, murala  
margotzea.  
*Gaztetxean, 19:00etan.*

**ELORRIO Erakusketa**  
'Dolu perinatale ikusaraziz' (Esku  
Hutsak elkarte).  
*Iturri kultur etxean, otsailaren 28ra*  
*bitartean.*

**IURRETA Kontzertua**  
*My Bastard Friend.*  
*Korta tabernan, 20:00etan.*

**MAÑARIA Bisita Gidatua**  
'Harrobiak, bideak eta  
bentak' ibilbidea (Berbalagun).  
*Plazan, 16:00etan.*

**ZORNOTZA Antzerkia**  
'Itzulera' (Dejabu).  
*Zornotza Aretoan, 20:00etan.*

**ZORNOTZA Erakusketa**  
'Biluztasuna' (Pintzelak elkarte).  
*Zelaieta zentroko erakusketa*  
*gelan, otsailaren 21era arte.*

## ZAPATUA 8

**ABADIÑO Musika**  
IX. Amaraun Elektronikoa.  
*Amaraun Arte Fabrikan, 14:00etan.*

**BERRIZ Antzerkia**  
'La cosa' (Cristina Castillo).  
*Kultur etxean, 19:00etan.*

**DURANGO Antzerkia**  
'Cuenta atrás' (Banarte).  
*San Agustín kulturgunean, 19:00etan.*

**DURANGO Puzgarriak**  
Puzgarriak igerilekuan (5-12 urte).  
*Igerilekuan, 16:30etik 19:00etara.*

**ELORRIO Kontzertua**  
'Oroimena askatasunerantz'.  
Mendi buelta eta omenaldia,  
09:30ean, parkinetik irtenda.  
Bazkaria, 14:00etan.  
Mahai-ingurua, 16:00etan.  
Reder + Galazota, 22:30ean.  
*Elorrixoko Gaztetxean.*

**IURRETA Irteera**  
Elgetara bizikleta irteera. lurreta  
Txirrindulari Elkarte.  
*lurretan, 10:00etan.*

**IURRETA Biribilketa feminista**  
San Valenthin tailerra, 18:30ean,  
plazan. Ondoren, poteoa herritik.  
Ezagutza jolasak eta afaria, 21:00etan.  
Gero, Irati Otadui akustikoan.  
*Montoste elkarte.*

**IURRETA Kontzertua**  
Jac Electric.  
*Korta tabernan, 20:00etan.*

**ZORNOTZA Antzerkia**  
'Ensayo general' (Banarte).  
*Zornotza Aretoan, 19:00etan.*

## DOMEKA 9

**ATXONDO Ibilbide zirkularra**  
Arrazolatik ibilbidea (Berbalagun)  
*Tope alboko parkinean, 09:00etan.*

**ABADIÑO Musika**  
Okene Abregok, Mikel Abregok eta  
Mariano Hurtadok osaturiko -Gailu  
hirukote gipuzkoarrak kontzertua  
emango du, domekan, Abadiñon.  
Negu Gorriak, BAP! eta Inoren Ero  
Ni taldeetan aritutakoak dira.  
*Otsailak 9, domeka, Amaraun Arte*  
*Fabrikan, 13:30ean.*

**DURANGO Ibilaldi gidatua**  
'Errepublikazaleen ibilaldia', Jimi  
Jimenez historialariak gidatuta.  
*Plateruenean, 11:00etan.*

**IURRETA Irteera**  
Ugaora bizikleta irteera. lurreta  
Txirrindulari Elkarte.  
*lurretan, 10:00etan.*

## EGUAZTENA 12

**IURRETA Aurkezpena**  
Miren Amurizak 'Pleibak' liburua  
aurkeztuko du. Ondoren, solasaldia.  
*Montoste elkarte, 19:00etan.*

## EGUENA 13

**ABADIÑO Kontzertua**  
Estutu taldea.  
*Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.*

**DURANGO 40 Minutu Rock**  
*Fermin Muguruza + KSKA.*  
*Plateruenean, 20:00etan.*

## BARIKUA 14

**DURANGO Kontzertua**  
Armarri + Harakin.  
*Rugby tabernan, 21:30ean.*

**IURRETA Kontzertua**  
Gorka Naste.  
*Korta tabernan, 20:00etan.*

**ZORNOTZA Antzerkia**  
'Ni flores, ni funeral, ni cenizas, ni  
tantán' (La Dramática Errante).  
*Zornotza Aretoan, 20:00etan.*

## ZAPATUA 15

**ABADIÑO Lehiaketa**  
XXXV. Burduntziko bildots  
txapelketa, 10:00etan hasita.  
Bildots bazkaria.  
*Probalekuan, 14:00etan.*

**BERRIZ Antzerkia**  
'Heisenberg' (Ttantaka).  
*Kultur Etxean, 19:00etan.*

**BERRIZ Liburu aurkezpena**  
'Txalopin Txalo' kantu liburua  
aurkezpena.  
*Kultur Etxean, 17:00etan.*

**DURANGO 40 Minutu Rock**  
Nakar + Anestesia + Süne +  
Tatta&Denso + TOC + Añube + La  
Txama + Pinpilinpussies + Dupla +  
Kaleko Urdangak + Chuleria Joder  
+ Sukena + La Inquisición. Horrez  
gain, Fito Skins + Maruxak + DJ  
Pezon + Pelma & Luis Selektotarrak  
+ Ganibet + DJ Elepunto.  
*Landako Gunean, 10:30ean hasita.*

**DURANGO Antzerkia**  
'Por voluntad propia' (Perigallo).  
*San Agustín kulturgunean,*  
*19:00etan.*

**IURRETA Kontzertua**  
Aro & Edu (Gorazarre Amarali).  
*Korta tabernan, 20:00etan.*

**ZORNOTZA Antzerkia**  
'Elara, bidaia bat izarretara' (Mar Mar).  
*Zornotza Aretoan, 17:30ean.*

## ZINEMA

## BERRIZ

## KULTUR ETXEA

**La semilla de la higuera sagrada**  
Domeka 9: 19:00.

## DURANGO

## ZUGAZA ZINEMA

**Fuera de la ley**  
Barikua 7: 18:00, 20:30.  
Zapatua 8: 19:15, 21:30.  
Domeka 9: 19:30.  
Astelehena 10: 17:45, 20:15.  
Martitzena 11: 17:45, 20:15.

**María Callas**  
Barikua 7: 18:00, 20:30.  
Zapatua 8: 19:15, 21:30.  
Domeka 9: 19:30.  
Astelehena 10: 17:45, 20:15.  
Martitzena 11: 17:45, 20:15.  
Eguaztena 12: 19:00.

**The Brutalist**  
Barikua 7: 19:00.  
Zapatua 8: 18:30.  
Domeka 9: 18:30.  
Astelehena 10: 18:00.  
Martitzena 11: 18:00.  
Eguaztena 12: 18:00.

**Finnick. Un monstruo en cada casa**  
Zapatua 8: 17:15.  
Domeka 9: 17:15.

**Flow. Un mundo que salvar**  
Zapatua 8: 17:15.  
Domeka 9: 17:45.

**Azerik eta Errik basoa salbatzen dute**  
Zapatua 8: 16:45.  
Domeka 9: 16:45.

**Love songs (opera)**  
Eguaztena 12: 19:00.

## ELORRIO

## ARRIOLA ANTZOKIA

**Las vidas de Sing Sing**  
Zapatua 8: 20:00.  
Domeka 9: 20:00.  
Astelehena 10: 20:00.

**Robot Salvaje**  
Domeka 9: 17:00.

## MALLABIA

## KONTZEJUZARREAN

**Ombuaren itzala**  
Eguena 13: 18:30.

## ZORNOTZA

## ZORNOTZA ARETOA

**Itoiz udako saioak (JBGA)**  
Domeka 9: 20:00.  
Astelehena 10: 20:15.

**La quimera (JBGA)**  
Martitzena 11: 19:00.

**Flow, un mundo que salvar**  
Domeka 9: 17:00.



GALDER IZAGIRRE





Gaur egun Efrén Vázquez pilotuaren eskolan dabil.

# "Nire indargune nagusia euripean gidatzea dela esango nuke"

**MARCO PADREDA ACEVEDO (ABADIÑO, 2007) MOTOZIKLISTA**

laz Euskadiko txapelketa irabazi zuen Supermoto 450 kategorian, Supermotard modalitateko mailarik gorenean. Aurten tituluari eustea izango du helburu



Marco Padreda lasterketa batean.

**Joseba Derteano ABADIÑO**

Umetatik du motoekiko grina. Zortzi urte gaz, Jorge Lorenzoren aitaren eskolan trebatu zen. Gaur egun Efrén Vázquezen eskolan dabil. Abiadurako motoziklismoan lehiatzeak dituen kostu handiak eraginda, Supermotard-ean dabil orain, ekonomikoki eramangarriagoa delako. Batean zein bestean, onenen artean dabil.

**Zure lehenengo trebakuntza Jorge Lorenzo moto gidari ohiaren aitaren eskolan jaso zenuen. Zelan gogoratzen duzu?**

**"MOTOZIKLISMOAN MOTO ONA IZATEA INPORTANTEA DA: % 60 MOTOA DA ETA % 40 PILOTUA"**

Zortzi urte gaz, nire bizitzan aldaketa inportante bat izan zen. Nire familiagaz Nafarroako Castejón herrira joaten nintzen asteburuetan. 400 kilometro, joan-etorria. Asteburu osoa han ematen genuen, barikutik domekara. Zirkuituan bertan lo egiten genuen, furgonetetan. Lagunekin asteburu-pasa kanpinera joatea lakoa zen. Oso ondo pasatzen nuen. Hara joaten ginen denok familia bat ginen: elkarregaz bazkaldu, furgonetan lo... Ordu askotan arlo fisikoa lantzen genuen: gimnasia, trebetasun ariketak... Gero motoa hartzen genuen, zirkuituan ibiltzeko.

**Abiadura probetan hainbat bider geratu zinen txapeldunorde Aragoiko eta Nafarroako txapelketan. Baina, gero, abiadura Supermotardagaitik aldatu zenuen. Zergaitik?**

Biderik ekonomikoena zen. Motoaren mundua garestia da, berdin da zein modalitate, baina Supermotarda eramangarriagoa zen. Gatz da babesleak lortzea. Nire gurasoek ondo dakite hori, ate asko jo dituztelako. Iraganean hainbat babesle izan dut. Gaur egun bi baino ez ditut, Abadiño-ko Udala eta Durango Sport Club & Span. Eskerrak ematen dizkiet babesleei, eta baita nire gurasoei ere. Euren bizitza nire kirolera egokitu dute eta betirako eskertuta egongo naiz.

**laz Euskadiko txapeldun geratu zinen Supermoto 450 mailan, Supermotardeko kategoriarik gorenean. Zelan joan zen lasterketa?** Bost lasterketatik hirutan lehia-tu nintzen, Cotar zirkuituan (Burgos), eta hirurak irabazi nituen. Irabazteko aukera ikusten nuen eta oso pozik nago. Aurten berriro garaipena lortzea izango dut helburu.

**Motoa ala pilotuaren trebezia, zer da garrantzitsuagoa?**

Nire ustez, % 60 motoa da eta % 40 pilotuaren trebetasuna. Moto ona izatea garrantzitsua da.

**Zuk moto ona izan duzu?**

Aurten moto dezentea eduki dugu, baina ez da besteenen mailara heltzen.

**Falta zena zuk ipini duzu?**

Tira, zegokiona baino gehiago arriskatzea egokitu zait batzuetan. **Euripean eta zirkuitu bustian nabarmentzen ei dira piloturik onenak. Euria gustuko duzu?**

Irteerekin batera, euritan gidatzea nire indargune nagusia dela esango nuke. Desiratzen egoten naiz euria egin dezan. Baldintza horietan, pilotuaren garrantzia % 60ra igotzen da nire ustez. Buruak eta konfiantzak zeresan handia dute: arin joan zaitezkeela sinestu behar duzu.

**Zein izan da zure lasterketarik onena euripean?**

2022ko Espainiako txapelketa, Galiziako Forcarei herriko zirkuituan. Eguraldi aldakorra zegoen. Denok zalantzan geunden zer pneumatiko mota ipini. Euritakoa ipintzea erabaki genuen. Erdi inguruan nengoen irteera puntuan. Sekulako euri jasa bota zuen hasi aurretxoan. Irten bezain laster erorikoak izan ziren eta inbutua sortu zen. Azkeneko geratu nintzen. Ez nuen etsi. Atzetik aurrera egin eta itzuli biren faltan lider jarri nintzen eta irabazi egin nuen. Neure buruarengan sinistu nuelako! Nire ibilbideko garaipenik onena izan zela esango nuke.

**Erorikoak kirolaren parte dira. Zein izan da zure erorikorik txarrena?**

Orain urte bi, Cotarren. Sailkapen proban, aurreko balaztarik barik geratu nintzen. Bihurgunean frenatu ezin, zuzen joan eta sakongune batean jausi nintzen. Konortea galdu nuen une batez. Zati batean inork ez ninduen ikusi. Zirkuituko osasun zentroan artatu ninduten. Zorionez, dena zerbikalen inguruko kolpe bat baino ez zen izan. **Kostatu egin zitzaizun errekupe-ratzea?**

Hurrengo egunean irteera puntuan negoen berriro. Kaskoa aldatu, eta aurrera. Azkenengo irten eta laugarren amaitu nuen. **Efrén Vázquez pilotuak Gipuzkoako Olaberria herrian duen eskolan zabilta gaur egun.**

Bai, hilean asteburu bitan joaten naiz. Oso gustura nago. Askok ikasten nabilela sentitzen dut. **Motoziklismoan baduzu idolorik?** Marc Márquez eta Fabio Quartararo.

**Malasia 2015, Sepango zirkuitua, Rossisen ostikada famatua Markezzen motoari. Nork zuen arrazoa?** Umea nintzen baina ondo gogoan dut. Nik uste Rossiren ostikada lekuz kanpo egon zela!



# Zornotza STk Larreako magia behar du berriro

**SASKIBALOIA** Zornotza Saskibalo Taldea estu eta larri dabil Zilarrezko LEB Mailan. Azken-aurreko postuan dago une honetan. Orain arteko bost garaipenak etxean lortu ditu; domekan Larreako magia behar du, beste behin ere, aurkariak ez aldentzeko

**J.D. ZORNOTZA**

Azken urteetan goiko postuetan ibiltzera ohituta egon da, baina Zornotza Saskibalo Taldea bestelako borroka batean murgilduta dago aurten. Zilarrezko LEB Maila amaitzeko hamar jardunaldiren faltan, zornotzarrak azken-aurreko postuan daude sailkapenean. Orain arteko hamasei partiduetan bost garaipen lortu dituzte eta denak etxean izan dira. Beraz, liga amaitu bitartean, Larrean jokatzen diren partiduek berebiziko garrantzia izango dute mailari eusteko bidean. Hurrengo hitzordua zapatu honetan bertan izango da. Teknei Bizkaia Zornotzak eta Clinica Ponferradak Larrean neurtuko dituzte indarrak, 18:30ean.

## Ardanzaren ekarpena

Oier Ardanza bikain dabil aurten. Bartzelona eta Gran Canaria klub handietako harrobietan trebatutako durangarrak Zor-



Oier Ardanza saskira jaurtitzen. LUIS ITURRIOZ

notzarako bidea hartu zuen 2021ean, eta aurten, 23 urtegeaz, bere mailarik onena erakusten dabil. Esaterako, abenduko jardunaldi batean Zilarrezko LEB Mailako jokalaririk balioetsuena izendatu zuten, 28ko balorazioa-

gaz; tartean, 21 puntu. Gainera, iaiztik hona bikoiztu egin du partidu bakoitzean sarturiko puntu kopurua, batez beste 11 puntura heldu arte, Espainiako saskibalo federazioko datuen arabera.

## Bidezabal, seigarren Europako txapelketan

**ATLETISMOA** Durangoko atletismo klubeko kideak oso pozik daude nazioarte mailako estreinaldiagaz

**J.D. DURANGO**

43 urteko historian lehenengoz, Bidezabalek nazioarteko txapelketa batean parte zuten joan zen asteburuan. 20 urtez azpiko Europako Kros Txapelketan izan zen, Portugalen. Hasieran bosgarren tokia eman bazieten ere, azkenean seigarren tokian amaitu zuten. Edozelan ere, klubeko kideek adierazi dute "arrakasta handiko lorpena" izan dela eta "oso pozik" daudela. Bidezabaleko lau korrikalari lehiatu ziren; Laia Cariñanos 12. postuan sailkatu zen; Andrea Buenavida 18. postuan, Axpe Aja 28.ean, eta Ixone Sanchez 36.ean.



Bidezabaleko lau gazteak.



Mendeurreneko kalejira.

## Amorebieta, garai bateko argazki eta objektuen bila

**FUTBOLA** Mendeurreneko erakusketa osatzeko, klubekoek herritarren laguntza eskatu dute

**J.D. ZORNOTZA**

SD Amorebieta erakusketa bat antolatzen dabil ekainerako, mendeurreneko ospakizunen barruan. Bertan, klubaren historiari errepaso egiten lagunduko duten argazki eta objektuak erakutsiko dituzte. Erakusketa ahalik eta aberatsena izan dadin, klubak laguntasuna eskatu die herritarrei. Artikulu balioetsuren bat edo bitxiren bat duenak klubeko denda ofizialera eramanez dezaite otsail, martxo eta apirilko bariku guztietan. Orduetgia honako hau da: goizean 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara.

## JOKALDIA



**MIKEL CANIBE ANSORENA** LARRASOLOETA XAKE TALDEKO PRESIDENTEA

## Eskandalua xake munduan

Beste eskandalu bat xake munduan. Joan den astean, Nodirbek Yakubboev Maisu Handiak Vaishali Rameshbabu Maisu Handiaren kontra jokatu behar zuten Tata *Steel Chess Challenger* txapelketan. Partida hasi aurretik, Vaishalik eskua eskaini zion bere aurkariari, baina hark ez zion hartu eta ez ziola emango esan zion.

Bi jokalarik hauek elkar ezagutzen ez zuten eta aurretik elkarren arteko arazorik ezagutzen ez zenez, arazoa Vaishali emakumea izatea izan zela suposatu zen. Xakean, gizonak eta emakumeak betidanik elkarrekin jokatu izan dute txapelketetan. Lehen, ohikoa zen jokalariek emakumea zirikatzea eurretako baten aurka jokatzean. Vera Menchiken kasu famatua aurreko artikulu batean azaldu genuen. Baina gaur egun horrelako jarrerak alde batera geratu direla uste zen. Horrez gain, xakean bostekoa ez ematea ez da kiroltasun falta bat bakarrik. Arauek diote eskua eman behar

dela partida hasi aurretik; bestela, partida galdutzat ematen dela, jokatu ere egin gabe.

Famatua da Nigel Short bere aurkari Ivan Cheparinovi eskua ematen saiatu zela 2008an, eta Cheparinovek birritan ukatu ziola. Shortek protesta egin zuen eta epaileak Shorti eman zion partida. Ondorioz, Cheparinovek apelazio bat aurkeztu zuen. Azkenean, Cheparinovek eta Shortek partida errepikatu egin behar zutela erabaki zen, Cheparinovek ofizialki barkamena eskatzen bazion. Eta barkamena eskatu zion.

**"VAISHALIK ESKUA ESKAINI ZION BERE AURKARIARI, BAINA EZ ZION HARTU ETA EZ ZIOLA EMANGO ESAN ZION"**

Vaishalik ez zion arbitroari deitu eta partida jokatzea erabaki zuen; gainera, bikain irabazi zuen. Askok karma izan zela esan zuten.

Gertaera hau xake munduan oso esanguratsua izan zenez, Yakubboev azalpenak eman zituen. Eskua ez ematearen arrazoia erlijioa izan zela esan zuen, bera musulmana dela, eta bere erlijioak ez diola uzten emakumeak ukitzen, baina errespetu osoa duela emakume jokalarirenganako, eta barkamena eskatu zion, horrek sortu zuen egoera desatsegina zela eta.

Azalpen hau askorentzat ez da onargarria izan; alde batetik, emakume bati eskua ez ematea emakumea izateagatik matxismoa goitik behera erakusten duela; eta, bestetik, federazio internazionalaren legeek eskua ematea beharrezkoa dela diotelako eta jokalarik honek, nahiz eta txapelketan lau emakume parte hartuko zutela jakin, ez zien ezer esan txapelketako antolatzaileei.



## KOMIKI TIRA UNAI GAZTELUMENDI

**EZKERRA** ETA  
**ESKUBIA**  
(POLITIKAZ ARI NAIZ)



## GUARDIAKO BOTIKAK

**UTSAILAK 7, BARIKUA**

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Goria, Sabino Arana 6 - Zornotza

**UTSAILAK 8, ZAPATUA**

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

**UTSAILAK 9, DOMEKA**

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

**UTSAILAK 10, ASTELEHENA**

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

**UTSAILAK 11, MARTITZENA**

09:00-09:00

De Diego, Intxaurren 22. - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

**UTSAILAK 12, EGUAZTENA**

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

**UTSAILAK 13, EGUENA**

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: [www.anboto.org/botikak](http://www.anboto.org/botikak)

## ZORION AGURRAK

**GOZATU GOZATEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO


Tel.: 946 201 663

gozatudurango@gmail.com

☎ 661 40 14 00

f Gozatu Gozategia


📧 gozaturgozategia



## ABADIÑO

**Kattalin del Río Zabaleta**

Otsailaren 8an, 10 urte. Abadiñoako sorgintxo polittinak hamar urte egiten dauz. Zorionak eta musu asko etxekoan partez, bereziki asko maite zaituzten Aratzen eta Malenen partez.



## IURRETA

**Txomin Padilla**

Otsailaren 9an, 9 urte. Zorionak, Txomin! Dagoeneko 9 urte gure artean. Jarraitu zaren bezalako izaten eta seguru zure helburu guztiak lortuko dituzula! Askok maite zaitugu! Familia guztiaren partez.

## Urte askotarako!

**Zorionak Uxue** (1008.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta [Anboto.org/zorionagurrak](http://Anboto.org/zorionagurrak) helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.


**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [zorionagurrak@anboto.org](mailto:zorionagurrak@anboto.org) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

**Ordezkaritzak**

Etorri zaitetz Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

## EGURALDIAREN IRAGARPENA



Otsailak 7, barikua.

**AgroPaper®**  
NEKAZARITZA  
JASANGARRI BATERAKO  
NEGUTEGIA



 Smurfit Westrock



# Okm: batzen gaituen distantzia

**anboto**  
**kide**

## EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

## HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

## HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreraren.

## IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

## KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

## LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

## ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

## NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

## URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

## LA PERLA

- %15eko deskontua sasoiaren jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

## NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

## HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan.

## URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

## EILEKE

### Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotritateak

- %15eko deskontua saio solteetan.

## TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

## PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

## KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoiak lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

## GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

## SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik).

## URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

## MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

## OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

**BERRIA!**

### URTXINTXA JOSTAILU DENDA

- %5eko deskontua erosketan guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

## ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



**Atera etekina txartelari!**

**Egin zaitez  
Anbotokide:  
946 816 558**

Deitu eta  
eman izena!







LAU-HORTZA

KAROLINA  
SUAREZ

## Udaberri goiztiarra

Asteak dira udaberriaren iragarle xumea dugun San Jose lorea loratu zela; udaberri lore goiztiarra, gero eta goiztiarra goa azken urteotan. Askok jan egiten dute, udaberriak dakarren indar berria bereganatzeko edo. Sekula ez zait halakorik otu, nahiz eta jakin sendabelarra ere badela.

Euskal Herriko lurrek dar-dar egin dute asteen makila kolpeen eraginez; lurra esnatzeko, udaberria etorri badatorrela aldarrikatzeko. Egia esan, ez dakit lurrak zenbat denbora behar duen guztiz ernatzeko, nagiak botatzeko, baina eguna luzatu egin dela nabari da, eta polen gogaikarriak aurki lore usaina zabalduko du airean.

Hegaztiak ere udaberriko ohiko portaerekin hasi dira inoiz baino lehenago. Klima aldaketak espezieentzako arriskua dakar, ziklo biologikoen desdoitzea, gaixotasunak, ur eskasia, baso-sute gehiago izateko arriskua, alergia gogorragoak eta luzeagoak... Neguko gaitzei udaberri aurreratutako eragindako gaitzak batu zaizkie eta bie batera egin beharko diegu aurrerantzean aurre. Errazena zaigu sinestea bizitzaren aldaketei egokitzea dela onena. Neguaren iluntasunak eragiten duen animo beherakada arin pasatuko zaigula udaberriaren argitasunarekin; eta, zein maja gauden eguzkitako betaurrekoak jarrita tabernako terrazan bermut bat eskuan.

AKUILUA

# "Garai bateko saltoki handia zen denda hau"

**ANA DESCARGA SARROA** DENDARIA

Ana Descargak (Elorrio, 1964) bizitza osoa eman du Sagastizabal dendari lotuta. Aurten, ehun urte betetzen dira Pedro Sagastizabalek janari denda zabaldu zuela

**A. Basauri** ELORRIO

Elorrioko Sagastizabal dendak urte berezia du aurten. Mendeurrena beteko da dendak lehenengo zabaldu zituela ateak, eta modu berezian ospatuko dute. Ana Descarga bezeroekin eskertuta agertu da eta nabarmendu du "bertako kalitatezko produktuak" eskaintzeko ahallegina egin dutela beti.

**Ospakizunerako urtea duzue aurtengoa. Zelan ospatuko duzue mendeurrena?**

Hile birik behin erosketa-gurditxoak zozkatutako ditugu, urterreneko *tote-bag*-ak atera ditugu, egutegi berezia kaleratu dugu... Irailean, zozketa handiago egingo dugu. Orduan izango zen Pedro Sagastizabalen urteguna, eta hori kontuan hartuta ospatuko dugu mendeurrena. Argazki erakusketa bat ere presatu gura dugu.

**Sagastizabal familiakoa izan ez arren, umetatik duzu lotura dendagaz.**

Bai. Bost urte hasi nintzen enkarguak egiten, Pedoren alaba Doloresentzat. Egunero etortzen nintzen, eguerdietan eta arratsaldeetan. Ogi bila joaten nintzen, aurrezki-libreta eguneratzerara... Dendan 14 urte hasi nintzen lanean. Bizi osoa daramat denda



**"BASERRIRAKO ANTZINAKO ERREMINTAK ETA MALETAK ERE SALDU IZAN DITUGU"**

honetan. Pedro Sagastizabalen langile izan nintzen lehenengo; gero, Dolores alabak hartu zuen negozioa. Jubilatuta zenean, Jesus Mari Sagastizabalegaz —Pedoren seme gazteena— batera hartu nuen negozioa, bion artean.

**Denerik saldu duzue bertan.**

Bai. Garai batean, abarketak, bonbatxoak, lanerako alkandorak, barruko arropa... saltzen genituen. Baserrirako antzinako erremin-tak eta maletak ere bai. Burdingegia ere izan dugu; lan asko egin dugu lantegiekin. Denda hau zabaldu zenean ez zegoen saltoki handirik. Sasoi bateko saltoki handia zen hau. Fruta eta bakailaoa ere saldu dugu, eta kafe-bihia ehotzen genuen. Oraindino giltzen kopiak ere egiten ditugu; Internet bidez ezin da horrelakorik egin, oraingoz behintzat (barrez).

**Honelako denda gutxi dago gaur egun.**

Bai, Elorrioren bakarrak gara. Gu ere adinean aurrera goaz, eta atzetik ez dator inor.

**Urte hauetan guztietan asko aldatu da lan egiteko modua.**


Itzelean! Hilean ordaintzeko hainbat fxitategi genuen, eta kontu guztiak eskuz egiten genituen. Oraindino ere kuaderno erabiltzen dute. Bestalde, erosketa etxera eraman dugu beti; gaur egun ere bai. Garai batean lez jarraitzen dugu lanean. Baina, gazteen kontsumo ohiturak beste era batekoak dira.

**Ez da erraza denda bat ehun urtean zabalik mantentzea.**

Dolores oso profesional ona zen, oso gertukoa. Gogoratzen dut, pastelak egiteko kazolak saltzen zituenean, errezetak ere ematen zizkiela bezeroei. Premia zutenei lagundu egiten zien, eta geroago ordaintzeko aukera eskaintzen zuen. Oso hartu-eman gertukoa zuen bezeroekin. Behin jubilatuta, dendara etortzen zenean ere bezeroekin egotea gustatzen zitzaion. Esku ona zuen bezeroekin. Horrela jarraitzen ahalgindu gara. Bestalde, familia negozioa mantentzeko prest egon dira belaunaldi berriak.

**Zuretzat zer da denda hau?**

Denda. Hainbat arlotako ikastaroak egin ditut: erakuslehoi-apainketa ikastaroak, paketeria.... Gustuko dut nire lana eta aurrera egiteko aukera izan dut. Dendan sartzen den jendeagaz hartu-eman hori izatea gustatzen zait. Pena emango dit denda ixtea. Helduko da horretarako momentua, eta atzetik ez dator inor lekukoa hartzeko. Denda dela, inork hartuko balu garai berrietara egokitu beharko luke.



## Bizimodu berri bat Durangon.

2. Fasea eraikitzen hasi gara.

Zure hitzordua eskatu:  
**946 462 041**  
sukia.com

**sukia**

Zure etxean zaude. Estás en tu casa.